

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

### ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

#### **1/2021 Foru Araua, urtarrilaren 26koa, Arabako Lurralde Historikoaren 2021erako Aurrekontua gauzatzeari buruzkoa**

Arabako Batzar Nagusietako Ogasun, Finantza eta Aurrekontu IV. Batzordeak, 2021eko urtarrilaren 26an egindako bileran, araugintza-ahalmen osoz, ondoko foru araua onartu zuen:

1/2021 Foru Araua, urtarrilaren 26koa, Arabako Lurralde Historikoaren 2021erako Aurrekontua gauzatzeari buruzkoa.

#### ZIOEN AZALPENA

Honako aurrekontu hauek abenduaren 18ko 53/1992 Foru Arauan, Arabako Lurralde Historikoko Ekonomia eta Aurrekontu Araubideari buruzkoan, xedatutakoa betez onartu dira, 12/2002 Legea, maiatzaren 23koa, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna onartzen duenaren 48. eta 62.b) artikuluetan ezarritakoaren babesean, 2021eko ekitaldirako onartu diren Arabako Foru Aldundiaren aurrekontu egonkortasuneko eta zor publikoko helburuekin bat etorritik, bai eta otsailaren 18ko 4/2005 Legean, Emakumeen eta gizonen berdintasunerakoan, jasotako arauzko agindua betez ere.

Aurrekontua gauzatzeko foru arau honen funtsa I. tituluan ageri da: Arabako Lurralde Historikoko foru sektore publikoaren diru sarrera eta gastuak onartzen dira eta haren zergetan eragina duten zerga gastuen zenbatekoa zehazten da.

II. tituluak Arabako foru sektore publikoaren zorpetzearen eta bermeak ematearen mugak ezartzen ditu, bai eta finantza eragiketen kudeaketari buruzko arauak ere.

III. tituluan, besteak beste, aurrekontu kredituen eta horien aldaketen arauketa orokorren espezialitateak arautzen dira. Zehazki, 2021eko ekitaldiko kredituen lotura mailak, kreditu transferentzien araubiderako salbuespenak, konpromiso kredituen araudiari buruzko hainbat alderdi eta gaikuntzen zehaztasunak.

IV. tituluak aurrekontuen kudeaketaren eta kontrolaren inguruko arauak, gastua baimentzeko eta antolatzeko eskumena duten organoak, diruzaintzako aurrerakinak, aplikatu beharreko berandutze interesa, zenbateko txikiko eskubide ekonomikoak, gastua gauzatzearen mugak eta kontrol ekonomikoa biltzen ditu.

V. tituluak langileen kudeaketaren araubideari buruzkoa, bi kapitulutan banatzen da. I. kapitulua, administrazio-sektore publikoari buruzkoa, eta II. kapitulua, foru sektore publikoko beste erakunde batzuei buruzkoa. Bi-biek arautzen dituzte aurrekontuko plantillaren osaera, funtzionarioen, lan kontratuko langileen, behin-behineko langileen eta goi kargudunen ordainsari osoak, dagokionaren arabera. Foru sektore publikoko langileen gastuen fiskalizazioa ere azpimarratzen du, eta kanpoko langileen lana eskatzen duten kontratu edo hitzarmenen arloan jarduteko jarraibideak adierazten ditu.

VI. tituluak erakunde konpromisoak eta toki erakundeen finantzaketa arautzen ditu.

Aurrekontua gauzatzeko Foru Arauan, gainera, hamalau xedapen gehigarri, xedapen iragankor bat, xedapen indargabetzaile bat eta bi azken xedapen daude. Xedapen horietan askotariko manuak ezartzen dira.

Lehenengo xedapen gehigarrian, urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoaren dirulaguntzenak, 32.6 artikuluan eta 131.h) artikuluan ezartzen dituen atari ekonomikoak arautzen dira.

Bigarren xedapen gehigarrian, langileen gastuak direla eta, Arabako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluari eta Arabako foru sektore publikoko gainerako organo eskudunei ahalmena eta baimena ematen zaizkie ordainsarien gehikuntza ezartzeko eta xedatzeko.

Hirugarrenak Arabako Foru Ogasunaren tasak eguneratzen ditu.

Laugarrenak eta bosgarrenak 2020an indarrean egon diren zenbatekoei eusten diete Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren eta Enplegu eta Merkataritza Sustapenaren eta Foru Administrazio Sailaren tasetan.

Seigarrena Nekazaritza Sailaren kudeaketa tasei buruzkoa da, eta Arabako Foru Aldundiaren nekazaritzako eta abelazkuntzako laborategietan entseguak eta analisiak egiteagatiko tasaren ehuneko 50eko eta ehuneko 75eko hobariari eusten dio, azaroaren 20ko 17/2011 Foru Arauaren Laugarren Xedapen Gehigarriaren bosgarren atalean arautzen den eran.

Zazpigarrenak Arabako Lurralde Historikoko errepideen foru sarea osatzen duten errepideetako istripu tasari eta seinaleztapenari buruzko ziurtagiriak, agiriak edo txostenak egiteagatiko tasa sortu eta arautzen du.

Zortzigarrenak eta bederatzigarrenak Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen eta Gazteriako Foru Erakundearen langileak hautatzeko tasetan, hurrenez hurren, 2020an indarrean egon diren zenbatekoei eusten diete.

Hamargarrenak AP-1 autobidea erabiltzeagatik 2021ean ordaindu beharreko bidesarien zenbatekoak ezartzen ditu.

Hamaikagarrenak toki-erakundeen zorpetze-erregimena arautzen du.

Hamabigarren, hamahirugarren eta hamalauugarren xedapenek xedapen iragankorrak erantsen dizkiote Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeen foru araudiari, 2020ko aurrekontuaren likidazioan zenbait gai arautzeko, bai eta 2021eko zorpetze araubideari buruzko beste batzuk ere.

Ondoren xedapen iragankorra dator, 2021en aplikatu beharreko berandutze interes ezartzen duena.

Horren guztiaren ondotik, xedapen indargabetzailea dator, aurrekontua gauzatzeko foru arauetan ohi den bezala, eta foru arauak bi azken xedapenak:

Azken xedapenetako lehenengoan, arau hau garatzen duen arautegia ezartzen da.

Amaitzeko, azken xedapenetako bigarrean, foru arau hau indarrean noiz jarriko den ezartzen da.

Berdintasuneko araudian ezarritakoa betetzeko, aurrekontu hauekin batera doa genero eragina ebaluatzen duen txosten bat.

Aurreikusten da generoak foru sektore publikoaren 2021erako aurrekontuetan izango duen eragina positiboa izango dela, kontuan hartuz genero ikuspuntua aurrekontu programetan txertatzeko egiten ari den prozesua.

## I. TITULUA. AURREKONTUEN ONARPENEA ETA EDUKIA

### 1. artikulua. Onarpena

Arabako Lurralde Historikoen 2021eko ekitaldiko aurrekontu orokorrak onartu dira. Horren barruan sartzen dira Arabako Foru Aldundiaren aurrekontuak eta Arabako Lurralde Historikoko foru erakunde autonomoen, foru sozietate publikoen, foru fundazioen eta foru partzuergoen aurrekontuak.

**2. artikulua. Arabako foru sektoreko erakundeen aurrekontu orokorrak**

Hauexek dira Arabako Foru Aldundiaren 2021eko ekitaldiko aurrekontuaren osagaiak:

Gastuen egoera orriari dagokionez, ordainketa kredituak eurokoak 2.469.904.380,00 dira eta konpromiso kredituak, aldiz, 390.220.270,00 eurokoak.

b) Sarrerren egoera orriari dagokionez, zenbatekoa 2.469.904.380,00 eurokoa da, eta horren barruan, zorpetze eragiketak ageri dira, 106.821.330,00 euroko zenbatekodunak.

Foru erakunde autonomoen 2021eko ekitaldiko aurrekontuak osagai hauek dauzka:

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen aurrekontua ondokoek osatzen dute:

Gastuen egoera orria: 224.241.670,00 euroko zenbatekoa guztira.

Diru sarrerren egoera orria: 224.241.670,00 euroko zenbatekoa guztira. Finantzaketarako barne transferentziak ere atal honetan sartzen dira: 172.762.270,00 euroko zenbatekoa guztira.

Gazteriaren Foru Erakundearen aurrekontuak honako osagaiak ditu:

Gastuen egoera orria: 6.488.120,00 euroko zenbatekoa guztira.

Diru sarrerren egoera orria: 6.488.120,00 euroko zenbatekoa guztira. Finantzaketarako barne transferentziak ere atal honetan sartzen dira: 5.059.490,00 euroko zenbatekoa guztira.

Arabako Foru Suhiltzaileak erakundearen aurrekontuak osagai hauek dauzka:

Gastuen egoera orria: 13.949.230,00 euroko zenbatekoa guztira.

Diru sarrerren egoera orria: 13.949.230,00 euroko zenbatekoa guztira. Finantzaketarako barne transferentziak ere atal honetan sartzen dira: 13.874.230,00 euroko zenbatekoa guztira.

Urbide Arabako Ur Partzuergoaren 2021eko aurrekontuak osagai hauek dauzka:

Gastuen egoera orria: 2.939.132,38 euroko zenbatekoa guztira.

Diru sarrerren egoera orria: 2.939.132,38 euroko zenbatekoa guztira. Finantzaketarako barne transferentziak ere atal honetan sartzen dira: 250.000,00 euroko zenbatekoa guztira.

Honako hauek dira foru sozietate publikoen 2021eko ekitaldiko aurrekontuaren osagaiak:

4.1. Araba Garapen Agentzia, S. A. ren aurrekontua. Atal hauek dauzka:

Ustiapen aurrekontua: 7.957.105,24 euroko zenbatekoa guztira.

Kapital aurrekontua: 1.444.678,20 euroko zenbatekoa guztira.

Arabako Kalkulu Gunea, S. A. ren aurrekontua. Atal hauek dauzka:

Ustiapen aurrekontua: 18.697.021,00 euroko zenbatekoa guztira.

Kapital aurrekontua: 0,00 euroko zenbatekoa guztira.

Naturgolf S. A. ren aurrekontua. Ondoko atalek osatzen dute:

Ustiapen aurrekontua: 917.057,00 euroko zenbatekoa guztira.

Kapital aurrekontua: 0,00 euroko zenbatekoa guztira.

ARABAT, Arabako Bideak, S. A. ren aurrekontua, ondokoek osatua:

Ustiapen aurrekontua: 9.407.019,27 euroko zenbatekoa guztira.

Kapital aurrekontua: 4.735.199,00 euroko zenbatekoa guztira.

4.5. Indesa 2010 S. L. ren aurrekontua, honakoek osatua:

Ustiapen aurrekontua: 20.371.354,31 euroko zenbatekoa guztira.

Kapital aurrekontua: 263.031,60 euroko zenbatekoa guztira.

4.6. Enargi Araba, S. A. ren aurrekontua, ondokoek osatua:

Ustiapen aurrekontua: 3.000,00 euroko zenbatekoa guztira.

Kapital aurrekontua: 709.800,00 euroko zenbatekoa guztira.

Foru fundazioen 2021eko ekitaldiko aurrekontuak osagai hauek dauzka:

Artium Fundazioaren aurrekontua. Atal hauek dauzka:

Ustiapen aurrekontua: 5.890.300,54 euroko zenbatekoa guztira.

Kapital aurrekontua: 108.000,00 euroko zenbatekoa guztira.

Kirolaraba Fundazioaren aurrekontua; atal hauek dauzka:

Ustiapen aurrekontua: 370.000,00 euroko zenbatekoa guztira.

Kapital aurrekontua: 0,00 euroko zenbatekoa guztira.

Santa Maria Katedralaren Fundazioaren aurrekontua; atal hauek dauzka:

Ustiapen aurrekontua: 2.012.486,32 euroko zenbatekoa guztira.

Kapital aurrekontua: 489.303,68 euroko zenbatekoa guztira.

Gatz Harana Fundazioaren aurrekontua; atal hauek dauzka:

Ustiapen aurrekontua: 2.100.779,65 euroko zenbatekoa guztira.

Kapital aurrekontua: 340.580,00 euroko zenbatekoa guztira.

Arabako Lurralde Historikoko zergetan eragina duten zerga gastuak 964.458.000,00 eurotan zenbatetsi dira 2021eko ekitaldian.

### **3. artikulua. Indarraldia**

Aurrekontu Orokorren indarraldia abenduaren 18ko 53/1992 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoen ekonomia eta aurrekontu araubidearenak, 30. artikuluan xedatzen duena izango da.

Foru erakunde autonomoen, foru sozietate publikoen, foru fundazioen eta foru partzuergoen ekitaldi ekonomikoa urte naturalarekin bat etorriko da, egindako eragiketen aplikaziorako sortzapen data kontuan hartuta.

## **II. TITULUA FINANTZA ERAGIKETAK**

### **4. artikulua. Zorpetzeko baimena**

Arabako Foru Aldundiari ahalmena ematen zaio aurrekontu izaerako zorpetze eragiketarako egiteko, baldin eta, 2021eko abenduaren 31n, foru zor bizia 620.000.000 eurotik gorakoa ez bada, honako helburu hauekin:

Aurrekontu-beharrei erantzutea 2021eko ekitaldian.

Epe luzeko kreditu eragiketarako egikaritzearen ziozko beharrei erantzutea, arau honen hamai-kagarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera.

Arabako toki-erakundeentzako finantzaketa eta aurrekontu neurriak ezartzen dituen urriaren 21eko 19/2020 Foru Arauan ezarritakotik eratorritako beharrei erantzutea.

2020ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioan izandako altxortegiko gerakin negatiboa konpentsatzea.

2. Arabako Foru Aldundiari ahalmena ematen zaio proiektuen finantzaketa abalatzeko beharrezkoak diren programak onar ditzan, gehienez ere 10.000.000,00 euroko saldo bizia baliatuz.

Arabako foru sektore publikoko gainerako erakundeei ez zaie zorpetzeko eta bermeak emateko ahalmenik ematen, Arabat, Arabako Bideak S. A. foru sozietate publikoari izan ezik. Sozietate horri 5.000.000 euroko zorpetze eragiketak hitzartzeko baimena ematen baitzaio, eta Arabako Foru Aldundiari eragiketa horiek bermatzeko.

Halaber, Enargi Araba SA foru sozietate publikoari ahalmena ematen zaio Ekiola proiektuarekin lotutako inbertsioak finantzatzeko eragiketak berma ditzan Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeentzat, gehienez ere, 1.000.000 euroko zenbatekoa baliaturik.

Aurreko aurrekontu ekitaldietan Arabako foru sektore publikoko erakundeek formalizatutako zorpetze eragiketak ordezkatzeko formalizatu beharreko zorpetze eragiketak baimentzen dira, betiere erakunde horietako edo finantza merkatuetako finantza egoeran egondako aldaketek justifikatzen badituzte eta finantza karga murrizten badute, amortizazio aldia zabaltzen bada edo biak.

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak altxortegiaren unean uneko zailtasunak artatzeko behar dituen finantzaketa eragiketak formalizatu ahal izango ditu.

Foru sozietate publikoek, foru fundazioek eta foru partzuergoek Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren baimena beharko dute diruzaintzako zailtasunei erantzuteko behar diren finantzaketa eragiketak egin ahal izateko.

#### **5. artikulua. Zorpetze eragiketen araubidea**

Arabako Foru Aldundian, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren eskumenekoak dira:

Foru arau honen babespean gauzatzen diren epe labur eta luzerako zorpetze eragiketen interes tasa, epea, baldintzak eta bestelako ezaugarriak finkatzea. Hala badagokio, eragiketa horiek gauzatu egingo ditu, Arabako Foru Aldundiaren ordezkari den aldetik.

Aurreko aurrekontu ekitaldietan egindako zorpetze eragiketak berriz finantzatzea, amortizatzea edo ordeztea, betiere, Arabako Foru Aldundiaren finantzetan edo finantza merkatuetan izandako aldaketen ondorio badira, Foru Arau honen 4.4 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Zor publikoaren jaulkipenetako baldintzak aldaraziko dituzten edo horien kostua hobetzea helburu duten trukaketak, bihurketak, luzapenak, finantza trukeak edo bestelako eragiketak ituntzea. Izan ere, horrelako eragiketa guztiak itundu egin beharko dira: bai aurretik dauden zorpetzeak, bai foru arau honen ondorioz sortzen direnak.

Foru Aldundiaren kargura mailegatutako abalak edo bestelako berme motak emateko eragiketen baldintzak zehaztea.

Arabat, Arabako Bideak S. A. foru sozietate publikoaz denaz bezainbatean, artikulua honetako lehenengo idatz zatiko a), eta b) letretan aipatzen diren funtzioak egiteko eskumena daukan organoa haren araudian ezartzen da, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak aldeko txostena egin ondoren.

Enargi Araba, S. A. foru sozietate publikoari dagokionez, artikulua honetako lehenengo idatz zatiko d) letrean aipatzen diren funtzioak egiteko eskumena daukan organoa haren araudian ezartzen da, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak aldeko txostena egin ondoren.

Arabako Foru Aldundiak eta Arabat, Arabako Bideak S. A. sozietate publikoak hamabi hilabetetik gorako epean ordaintzeko egiten dituzten zorpetze eragiketa guztien berri emango diete Batzar Nagusiei.

#### **6. artikulua. Beste finantza eragiketa batzuen araubidea**

2021eko ekitaldian, altxortegiaren kudeaketa hobetzeko asmoarekin, Arabako Foru Aldundiak beharrezko deritzen finantza eragiketa guztiak itundu ahal izango ditu kapital merkatuan horretarako dauden bideak erabiliz.

Aurrekontua finantzatzea helburu ez duten finantza eragiketak ondare kontabilitatean baino ez dira jasoko. Hala ere, lortutako etekin garbiak edo sortutako gastuak aurrekontuetan sartuko dira.

Arabako Foru Aldundiak egindako finantza eratorrien eragiketak ondare kontabilitatean sartuko dira.

### III. TITULUA. AURREKONTU KREDITUEN ARAUBIDEA ETA ALDAKETAK

#### 7. artikulua. Kredituen izaera

Arabako Foru Aldundiaren, erakunde autonomoen eta foru partzuergoen aurrekontuan jasota dauden ordainketa-kredituak mugatzaile eta lotesleak izango dira. 2021eko ekitaldian, lotura mailak honakoak izango dira:

Kapitulu maila: "Langileen gastuak" atalari dagozkion kredituetan, Arabako Foru Aldundiaren Aurrekontuaren Ondarearen Kudeaketari buruzko 20.25 Programan esleitutako "Langileen gastuak" atala izan ezik, programa mailan izango baitira lotesleak.

Programa eta kapitulua: ondasun arrunt eta zerbitzuen erosketari, Arabako Foru Aldundiaren interesei eta finantza pasiboen aldakuntzari dagozkien gastuetan.

Programa eta artikulua: transferentzia eta dirulaguntza arrunt eta kapitalekoei, inbertsio errealei eta finantza aktiboan aldakuntzari dagozkien gastuetan.

Programa: Arabako Foru Aldundiaren aurrekontuko 20.25 «Ondarearen kudeaketa» programako gastuetan.

Arabako Foru Aldundiaren Obra eta Zerbitzuen Foru Planari buruzko foru arauetan xedatzen dena aplikatzearen ondoriozko kredituen hornidurak lotesleak dira beren artean.

Hala eta guztiz ere, Arabako Lurralde Historikoaren Ekonomia eta Aurrekontu Araubideari buruzko abenduaren 18ko 53/1992 Foru Arauko 47.4 artikuluan aipatzen direnez gain, honakoak ere lotesleak izango dira kasuan kasuko desagregazio mailaren arabera: finantzaketari lotutako gastuak ordaintzeko kredituak, dirulaguntza izendunei dagozkienak eta foru sektore publikoko erakundeentzako diru ekarpenak, bai eta finantzen ikuspegitik jasagarriak diren inbertsioetarako kredituak finantzatzekoak eta suspertzeko proiektu estrategikoak ere.

Foru sozietate publikoen eta foru fundazioen aurrekontuetako gastuen egoera orrietako ordainketa kredituen balioak zenbatetsiak dira (erakunde bakoitzak aurrekontu ekitaldian egingo duen lanaren aurreikuspeni dagozkie), honako hauek izan ezik: transferentzia eta dirulaguntzetarako (arruntak nahiz kapitalekoak) ordainketa kredituak, muga jakinekoak izango dira beti. Muga hori ez zaie aplikatuko Kirolaraba Fundazioak aurrekontuan onartutakoez gainetik jasotzen dituen sarrerei lotutako kredituei.

Kredituen lotura maila edonolakoa dela ere, gastuaren zenbatekoa eta kredituetan izandako aldaketak biegi dagozkien aurrekontu azpiatal edo sailetan sartuko dira.

#### 8. artikulua. Konpromiso kredituak

Arabako Foru Aldundiaren, erakunde autonomoen eta foru partzuergoen aurrekontuetan sartutako konpromiso kredituak honako muga hauen arabera banatuko dira:

Gastu arruntei dagokienez, hurrengo urteetarako esleitutako kredituen zenbatekoa, urte bakoitzean, ezingo da izan hasierako ekitaldian eragiketa arruntetara bideratutako kredituen zenbatekoa baino ehuneko 60 handiagoa. Lehen kapitulua eta erakunde konpromisoak salbuetsita geratzen dira, ordea.

Kapital eragiketetan ere muga ehuneko 60koa izango da mota bereko hasierako kredituekiko, eta horretan ez da inolako salbuespenik izango.

Aurreko paragrafoetan ezarritakoaren aldean bereziak direnez, salbuetsita geratzen dira obrak, proiektuak edo inbertsio programak eta hitzarmenak, betiere uneko ekitaldiko aurrekontuan islatuta badaude.

Konpromiso kredituei dagozkien ordainketa kredituak murriztuz gero, indargabetuta geratuko dira berehala, honako kasu honetan izan ezik: abenduaren 18ko 53/1992 Foru Arauak, ekonomia eta aurrekontu araubideari buruzkoak, 75.2 artikuluko a) edo b) idatz zatietan adierazten dituen eragiketak egiten direnean, bai kontabilitate egokitzapenen ondorio direnean, bai urterokoen birbanatzeen ondorio direnean.

### **9. artikulua. Kreditu transferentzien araubidea**

Kreditu transferentzien araubidea bat etorriko da abenduaren 18ko 53/1992 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko ekonomia eta aurrekontu araubidearenak, 57. artikuluan xedatutakoarekin. Programa baten barruan ezingo dira aplikatu batera aipatutako foru arauko 57.2 artikuluko d) eta e) arauak.

Hainbat programaren arteko eragiketa arruntetan kreditu transferentziak egin ahal izango dira.

Jatorriz, VI. kapituluari («Inbertsio errealak») eta VII.ari Kapital transferentzia eta dirulaguntzak») dagozkien ordainketa kredituen transferentziek eta 2. kapituluari («Ondasun arruntan eta zerbitzuen erosketa») eta IV.ari («Transferentzia eta dirulaguntza arruntak») dagozkien ordainketa kredituen transferentziek ezingo dute gainditu hasierako aurrekontuetan VI. eta VII. kapituluetarako finkatutako kopuruen baturaren ehuneko bia.

Jatorriz, I. kapituluari («Langileen gastuak») dagozkion ordainketa kredituak dituzten kreditu transferentziek bakarrik izan ahalko dute helburu gisa I. kapitulua bera edo kreditu globala, Arabako Foru Aldundiaren aurrekontuko 20.25 Programan («Ondarearen kudeaketa») esleitutako I. kapituluko ordainketa kredituak izan ezik; azkenak abenduaren 18ko 53/1992 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko ekonomia eta aurrekontu araubideak, 57. artikuluan ezartzen duen araubideari jarraiki transferitu ahal izango dira.

### **10. artikulua. Kreditu transferentzien araubidearen salbuespenak**

Honako hauek aurreko artikuluan zehaztutako kreditu transferentzien araubidetik kanpo daude:

Honako hornidura transferentziak: Estatuko Kupoa ordaintzeko egiten direnak eta, zerga partaidetzak eraginda, Euskal Autonomia Erkidegoari zein Arabako toki erakundeei egiten zaizkien ekarpenen ziozkoak.

«Finantza kudeaketa» deritzon programako kredituen artean egiten direnak.

Foru sektore publikoko erakundeak finantzatzeko zuzkiduretan egiten direnak.

Akats materialak gertatzen direnean (izatezkoak eta aritmetikoak), kontabilitate egozpen egozia lortzeko egin beharreko egokitzapen teknikoetatik datozenak. Horrez gain, Kontu Planaren arabera gastuak eta diru sarrerak egoki ez egoztearen ondoriozkoak ere bai.

Kreditu orokorreko programaren kredituetan eragina dutenak, bai jatorrian, bai helburuan.

Administrazioa berrantolatzearen edo eskumen nahiz zerbitzu berriak bereganatzearen ziozkoak.

### **11. artikulua. Konpromiso kredituen aldaketak**

Konpromiso kredituei eta aurreko ekitaldietako obligaziozko kredituei dagozkien ordainketa kredituek gainerako ordainketa kredituek bete beharreko transferentzien araudia bete beharko dute.



Diputatuen Kontseiluak baimendutako konpromiso kredituak eta aurreko ekitaldietako obligaziozko kredituak urterokoen bidez alda eta bana ditzake, gastuaren beharrak hala agintzen duenean, betiere oro har hartutako konpromiso kreditua gainditzen ez bada. Hori dela eta, «konpromiso kreditu osoa» adierazpena aurrekontuetako epigrafe bakar bati buruzkoa da.

Konpromiso kredituen zenbatekoetan gero izan daitezkeen aldaketak ez dira loturik egongo 53/1992 Foru Arauaren 57. artikuluaaren aldaketa araubideari.

Berez baliogabetuko dira aurreko ekitaldietako obligaziozko kredituen etorkizuneko urterokoei dagozkien aurrekontuak gauzatzeko eragiketen zioz sortzen diren aurrekontuko saldoak, honako hauek izan ezik: Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeak finantzatzeko kontu sailetako saldoak.

### **12. artikulua. Kreditu aldaketak baimentzeko eskumena duten organoak**

Kudeaketa zentralizatuko kredituetan eragina duten kreditu transferentziak Diputatuen Kontseiluak onartu beharko ditu, betiere kreditu horiek zentralizatu gabeko partidetarako izanez gero.

Abenduaren 18ko 53/1992 Foru Arauak, Arabako ekonomia eta aurrekontu araubideari buruzkoak, 63.2. artikuluan ezartzen duenari jarraiki, Diputatuen Kontseiluak konpromiso kredituen zenbateko osoaren ehuneko hamarra aldatu ahal izango du, gehienez.

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak edonoiz egin ahal izango ditu foru arau honetako 10. artikuluko d) eta f) idatz zatietan zehaztutako aurrekontu aldaketak.

### **13. artikulua. Kreditu aldaketen prozedura**

9.4 artikulua 20.25 «Ondarearen kudeaketa» programaz ezartzen duena gorabehera, kreditu orokorraren programa jatorri duten eta I. kapituluko kredituetan eraginik ez duten sailen transferentzia eskaerek honako eskakizun hauek bete beharko dituzte:

Eskaera egiten duen foru sailak honakoak frogatu beharko ditu: batetik, aurrekontuko zuzkidura handiagoa behar duela eta, bestetik, bere kredituen bidez ezin diola kasuan kasuko kopuruari aurre egin.

Horretarako, transferentzia eskabidearekin batera, kasuan kasuko gastu programaren beharren analisia ere aurkeztu beharko du, eta aurrekontua gauzatzeko ezarritako helburuekiko nolako desbideratzeak izan dituen azaldu. Horiez gain, sail horren kredituen burutzapen aurreikuspenei buruzko azterketa ere aurkeztuko du.

Erabilera askeko ordainketa kredituak finantzatzea helburu duten aurrekontu aldaketak bideratzeko, kasuan kasuko aldaketarekin batera izapidetuko den espedienteari dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko da. Halaber, erabilera askeko aurreko kreditua zertarako erabili zen egiaztatuko duten agiriak ere aurkeztuko dira.

Gastu zentralizatuetan eragina duten kreditu transferentziak bideratzeko, ezinbestekoa izango da horien organo kudeatzailearen onarpena izatea.

### **14. artikulua. Kreditu gaikuntzak**

Ekarpenerako eskubide edo konpromisoaren aitorten formala egonez gero, gaikuntzak eskuratuko dira Arabako Lurralde Historikoko Ekonomia eta Aurrekontu Araubideari buruzko abenduaren 18ko 53/1992 Foru Arauko 64. artikuluaaren a) eta e) idatz zatietan zehaztutako kasuetan.

Eskubidea aitortuz gero, abenduaren 18ko 53/1992 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko ekonomia eta aurrekontu araubideari buruzkoak, 64. artikuluko b), c), d) eta f) idatz zatietan zehaztutako gaikuntzak eskuratuko dira.

Edonola ere, Diputatuen Kontseilua arduratuko da gaikuntzak egiteaz.



**15. artikulua. Foru Arauaren eranskinak**

Abenduaren 18ko 53/1992 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko ekonomia eta aurrekontu araubideari buruzkoak, 50. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, foru arau honen I. eranskinean ageri diren kredituak handigarriak dira.

Konpromiso kredituen egoera II. eranskinean zehazten da.

Diru sarrerei lotutako gastuen egoera III. eranskinean jasotzen da.

Urriaren 9ko 11/2016 Foru Arauaren, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzenaren, 20.3 artikulua dela eta, dirulaguntza izenduntzat hartuko dira foru arau honen IV. eranskinean jasotakoak.

V. eranskinean, Arabako Lurralde Historikoko Ekonomia eta Aurrekontu Araubideari buruzko abenduaren 18ko 53/1992 Foru Arauaren 45.1.d) artikulua jasotzen duen inbertsio publikoa zehazten da.

**IV. TITULUA. AURREKONTUAREN KUDEAKETA ETA KONTROLA****16. artikulua. Arabako Foru Aldundiaren gastua baimentzea eta antolatzea**

Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko abenduaren 18ko 53/1992 Foru Arauak xedatutakoaren ondorioetarako, honako hauek baimendu eta antolatuko dituzte eragiketa arrunt eta kapitalekoen gastuak:

Eragiketaren zenbatekoa 200.000 eurotik gorakoa ez bada, foru sailtako diputatuek.

Zenbatekoa 200.000,00 eurotik gorakoa bada, Diputatuen Kontseiluak, sailtako foru diputatuek proposatuta.

Eragiketa bakoitzeko eta «Justifikatu beharreko ordainketen» kontzeptuan ordain daitekeen gehieneko kopurua 50.000 eurokoa izango da, honako kasu hauetan izan ezik:

Hartaileak sektore publikoko erakundeak diren ordainketak.

Nahitaezko desjabetzeko espedienteen ziozko ordainketak.

Diputatuen Kontseiluak salbuespen modura baimentzen dituen gainerako ordainketa guztiak.

Arabako Foru Aldundiak, hilerro, 2.c) idatz zatian adierazitako ordainketa baimenen berri emango die Biltzar Nagusiei, honako hauek azalduta: hartzailea eta zenbatekoa eta ordainketaren azalpena.

**17. artikulua. Diruzaintzaren aurrerakinak**

Diputatuen Kontseiluak, salbuespen gisa, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta, atzeratu ezinezko gastuei aurre egiteko diruzaintzako aurrerakinak emateko aukera izango du. Aurrerakin horiek ezingo dute gaingaitza ekitaldi bakoitzeko aurrekontua gauzatzeko Foru Arauan onartutako kredituen ehuneko bata.

Diruzaintzaren aurrerakinek aurrekontuen babesa izango dute, eta horrelaxe jasoko da, gainera, aurrerakina ematen den ekitaldiko aurrekontuetan.

Diruzaintzaren aurrerakin horien finantzaketa abenduaren 18ko 53/1992 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko ekonomia eta aurrekontu araubideari buruzkoak, III. tituluko V. kaptuluan xedatutako prozedurei jarraiki egingo da.

Aurrerakinen finantzaketarako kreditu gehigarriak behar izanez gero, ezinbestekoa izango da Diputatuen Kontseiluak, Ogasun, Finantza eta Aurrekontuetarako foru diputatuak proposatuta, kasuan kasuko foru arauaren proiektua onestea eta ondoren Batzar Nagusiei deitzea.

**18. artikulua. Urteko finantza plana**

Foru erakunde autonomoen, foru sozietate publikoen, foru fundazioen eta foru partzuergoen aldeko transferentziak Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren Urteko Finantza Planean aurreikusitakoari jarraiki egingo dira.

**19. artikulua. Kudeaketa kredituak**

Aurrekontuko ekitaldian zehar, kudeaketa kredituak finkatzeko aukera izango da, betiere Foru Aldundiari dagokion ekarpena aurrekontuko ordainketa kredituen bidez finantzatzuz gero.

**20. artikulua. Finantzaketa lotuko gastuak**

Zenbait kredituren finantzaketa baliabideen bilakaera aurreikusitakoa baino txikiagoa izanez gero, Diputatuen Kontseiluak, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren proposamenez, aurrekontuetako gastuen egoeran egin beharreko doikuntzak hitzartuko ditu. Doikuntza horiek Arabako Lurralde Historikoko Ekonomia eta Aurrekontu Araubideari buruzko abenduaren 18ko 53/1992 Foru Arauak 66. artikuluan baliogabetze murrizketez xedatzen duenaren arabera egingo dira.

**21. artikulua. Gastua gauzatzearen mugak**

Diputatuen Kontseiluak, Ogasun, Finantza eta Aurrekontuetarako Saileko diputatuaren proposamenez, kredituak atxikiz gastuari eusteko erabakia har dezake egoera ekonomikoak hala eskatzen duenean.

Aipatutako kredituak emanez gero, atxikipenetarako aurreikusitako izapide berberak egingo dira.

**22. artikulua. Berandutze interesa**

Bat etorritz Arabako Lurralde Historikoko Ekonomia, Finantza eta Aurrekontu Araubidea arautzen duen abenduaren 18ko 53/1992 Foru Arauak 19.2 artikuluan ezarritakoarekin, berandutze interesa ezartzen da 2021eko ekitaldian aplikatzeko, diruaren legezko interesa ehuneko 25 igotzearen ondorioz.

**23. artikulua. Zenbateko txikiko eskubide ekonomikoak**

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu diputatuak hauexek arautu ahal izango ditu:

Likidazioen zioz, ordainarazpenaren eta zerga bilketaren gastua estaltzeko nahikoa ez diren zorrak eginez gero, ez daitezela likidazio horiek egin, zorraren izaeraren irizpideak kontuan izanda.

Oro har, zordun bat berari dagozkion zor guztiak ezeztatu eta kontabilitatean baja eman daitezela, horrek zor duen kopuru osoa zerga bilketaren eraginkortasun irizpideen eta zerga bilketaren gastuaren arabera zenbatetsi eta finkatutako zenbatekoa baino txikiagoa denean.

**24. artikulua. Kontrol ekonomikoa**

Indarrean dagoen araudiak ezartzen dituen esku hartze eta kontu ikuskaritza lanetarako Arabako Foru Aldundiak nahi dituen kanpoko baliabideak erabil ditzake.

Foru erakunde autonomoetan, ekonomia, finantza eta kudeaketa kontrolak, kontrol ekonomikoa eta zergen kontrola ordezkatuko du. Salbuespena abenduaren 18ko 53/1992 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko ekonomia eta aurrekontu araubideari buruzkoak, 75.2. artikuluko a) eta b) idatz zatietan aipatzen dituen eragiketak gauzatzea da, kontratazioei eta diru laguntzen emakidari dagozkien gastuen espedienteetakoak, hain zuzen, zenbatekoa 5.000 eurotik gorakoa izanez gero.

**V. TITULUA. LANGILERIAREN KUDEAKETA****I. KAPITULUA. ADMINISTRAZIO SEKTORE PUBLIKOA****25. artikulua. Arabako Foru Aldundiaren, foru erakunde autonomoen eta foru partzuergoen aurrekontuko plantillak**

1. Arabako Foru Aldundiaren, foru erakunde autonomoen eta foru partzuergoen 2021eko ekitaldiko aurrekontuko plantillak Arabako Lurralde Historikoaren ekitaldi horretarako Aurrekontu Orokorretako «Langileen eranskinetan» agertzen direnak dira, eta mugatzaileak dira.

2. Arabako Foru Aldundiaren, foru erakunde autonomoen eta foru partzuergoen aurrekontu-plantillari dagokionez, izaera mugatzailea funtzionarioen eta lan kontratuko langile finkoen plazen guztizko kopuru metatuari dagokio, Foru Sektorre Publikoa osatzen duten erakunde guztientzat.

3. 2021eko ekitaldian, Lanpostuen Zerrenda aldatzeko espedienteak honako kasu hauetan besterik ez dira onartuko: ez da gastu gehikuntzarik sortu beharko, edo sortuz gero, kasuan kasuko gehikuntza bestelako lanpostuetarako kredituak murriztuz konpentsatu beharko da eta aurretik Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren aldeko txostena beharko da.

4. Aurreko mugak ez du eraginik izango epailearen aginduz edo eskumen berriak eskuratzearen zioz edo kanporatutako edo azpikontratutako zerbitzuen zuzeneko kudeaketa hartzearen zioz sortzen edo aldatzen diren lanpostuetan. Era berean, ez da aplikatuko foru sektore publikoan aurretik harreman finkoa eta mugagabea duten langile funtzionarioa edo lan kontratuduna kontratatzen denean, ez foru arauak aldarrikatzen direnean ez Gobernu Kontseiluak egiturazkoak ez diren planak, programak eta jarduketa garrantzitsuak onartzen dituenen ere, behar den moduko finantzaketarik eduki ezean, funtzio publikoaren arloan eskumena duen organoak aldeko txostena eman ondoren (txostenak adierazi behar du ez dagoela lanpostu atxikipen ez langile esleipen berririk egiterik eta ezinezkoa dela langileak arrazionalizatzeko eta antolatzeko bestelako neurririk aplikatzea).

5. Era berean, artikulua honen 3. paragrafoan jasotzen den muga ez da aplikatuko Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorrean lau plaza sortzeko: bat, egiturazko lanpostu bat finkatzeko; beste bi, lurralde orekaren eta erronka demografikoaren arloko jarduketari lotutako funtzioak betetzeko; eta laugarrena, adimen desgaitasuna duten langileentzat gordetako langile laguntzaileen zuzkidura bat sortzeko, sei lanpostukoa dena Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde Autonomoan, egiturazko izaera duten lanpostuak finkatzeko.

6. Bete gabeko lanpostuetarako kredituen soberakinak beste lanpostu batzuk edo aldi baterako programetarako langileak ordaintzeko erabiliko dira, betiere, horiek beharrezkoak direnean, zerbitzu publikoek behar bezala funtziona dezaten.

7. Salbuespenezkoa izango da bitarteko funtzionarioak izendatzea zeregin kopuru handiegia edo zereginen pilaketa dela eta, edo aldi baterako programak gauzatzeko, egoeraren arabera beharrei erantzun diezaieten.

**26. artikulua. Ordainsarien araubidea**

1. Arabako Foru Aldundiko, foru erakunde autonomoetako eta foru partzuergoetako funtzionarioen eta lan kontratuko langileen 2021eko ordainsari osoak, 2020ko abenduaren 31n indarrean egon direnekin alderatuta, foru arau honetan ezarritakoaren arabera handituko dira, erkatu diren bi aldiatarako homogeneotasunari eutsita, bai langileei dagokienez, bai antzintasunari dagokionez. Nolanahi ere, ordainsariek ezin izango dute gainditu estatuko oinarritzko legerian ezarritako mugak.

2. Aurreko idatz zatian esandakoaz gain, ordainsarrietan egokitzapen bereziak egin ahal izango dira salbuespen gisa, betiere ezinbestekoak direnean, lanpostuen edukiagatik, programa bakoitzari esleitutako langileen kopuruaren aldaketagatik edo programari ezarritako helburuen betetze mailagatik eta aplikazioaren emaitza indibidualagatik, egokitzapenak egiten dituzten erakundeetako bakoitzean horretarako organo eskudunak onartuta.

3. Foru kargu publikoak diren pertsonen doazkien ordainsariak handitu egingo dira 2021ean, hala badagokio, foru enplegatu publikoentzat ezartzen den ehunekoaren antzera. Nolanahi ere, ordainsariak foru kargu publikoetan aritzea arautzen duen uztailaren 11ko 10/2018 Foru Arauak xedatzen dituenetara egokituko dira.

4. Behin-behineko langileen lansariak kasu bakoitzean berdintzat jotzen diren funtzionario lanpostuen berberak izango dira edota, hala badagokio, lanpostuen sailkapen orokorraren arabera finkatuko dira.

5. Edonola ere, Arabako Foru Aldundiak, erakunde autonomoek, sozietate publikoek eta foru fundazioek sindikatu erakunde garrantzitsuenekin negoziazioak egin ondoren ordainsarien inguruko akordioak sinatu baino lehen, Ogasun, Finantza eta Aurrekontuen Sailaren aldeko txostena beharko da, eta akordioan ezin izango da ezarri guztirako ordainsarien igoera artikuluko honetako 1. eta 2. ataletan ezarritakoa baino handiagoa izatea.

6. Arabako Foru Aldundiak, erakunde autonomoek, sozietate publikoek eta foru fundazioek sindikatu erakunde garrantzitsuenekin eginiko negoziazioetan ezarritako gainerako lan baldintzen akordioetan, horiek sinatu baino lehen, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Sailaren aldeko txostena lortu beharko da.

#### **27. artikulua. Langileen gastuen fiskalizazioa**

1. Arabako Foru Aldundiko eta foru erakunde autonomoetako langile gastuen fiskalizazioa dagozkion nominei kontuak hartuz egingo da. Esku hartze horrek ordainsariaren ordainketa osteko fiskalizazioa izatera edukiko du. Gastu horiek gerora fiskalizatuko dira, kontu ikuskaritzako tekniken bidez.

2. Lan eskaintza publikoak, giza baliabideak antolatzeko planak eta horien deialdiak, lanpostuak betetzeko eta zerbitzu-eginkizunetarako beste deialdi batzuk, lanpostuen zereendak aldatzeko deialdiak eta, oro har, Arabako Foru Aldundiarentzat eta foru erakunde autonomoentzat ekonomia eta aurrekontu eragina duen beste edozein inguruabar ezin izango dira onartu aldez aurreko fiskalizazioaren aldeko txostenik gabe.

3. Era berean, nahitaezkoa izango da aurretiko fiskalizazioaren aldeko txostena, lanpostuko, programako eta gehiegizko zeregin zein zeregin pilaketaren ziozko bitarteko funtzionarioak izendatzeko. Betekizun horretatik salbuetsita daude presazko izendapenak, horiek berehala fiskalizatuko baitira.

Foru erakunde autonomoen kasuan, ez da nahitaezkoa izango aurretiazko fiskalizazioaren aldeko txostena, lanpostuko bitarteko funtzionarioen izendapenak egiteko.

#### **28. artikulua. Kanpoko langileak hartzea dakarten administrazio kontratazioak edo lankidetzaren hitzarmenak**

Erakunde, erakunde publiko edo pribatu, edo kanpoko pertsonen eta Arabako Foru Aldundiaren edo foru erakunde autonomoen arteko edozein administrazio kontratazio edo lankidetzaren hitzarmenak, baldin eta, kontratazioaren edo hitzarmenaren xedea garatzean, organo horren berezko erakunderen batean eginkizunak betetzen ari diren kanpoko langileen lana egitea badakarte, aldez aurretik erakunde bakoitzean funtzio publikoaren edo giza baliabideen kudeaketaren arloan eskumena duen organoaren txostena izan beharko du.

### **II. KAPITULUA: FORU SEKTORE PUBLIKOAREN BESTE ERAKUNDE BATZUK**

#### **29. artikulua. Foru Sektore Publikoko beste erakunde batzuen aurrekontuko plantillak**

1. Arabako Foru Aldundiaren, foru sozietate publikoen eta foru fundazioen 2021eko ekitaldiko aurrekontuko plantillak Arabako Lurralde Historikoaren ekitaldi horretarako Aurrekontu Orokorretako «Langileen eranskinetan» agertzen direnak dira, eta mugatzaileak dira.

2. Foru sozietate publikoen eta foru fundazioen aurrekontuko plantillari dagokionez, izaera mugatzailea funtzionarioen eta lan kontratuko langile finkoen plazen guztizko kopuru metatuari dagokio, Foru Sektore Publikoa osatzen duten erakunde guztientzat.

3. 2021eko ekitaldian, plantillen aldaketak onartu ahal izango dira soilik gastuaren gehikuntzarik gertatzen ez denean, edo gertatzen dena beste lanpostu baterako edo batzuetarako gordetako kredituak murriztuz konpentsatzen denean.

4. Indesa 2010, S. L. foru-sozietate publikoak ekoizpenari lotutako lan kontratudun langileen plazak sortzeari dagokionez, ez da 2. paragrafoan ezarritako muga aplikatuko sozietate horren helburuen garapenean, ezta Kalkulu Gunea, S. A. foru sozietate publikoak lau plaza sortzeari dagokionez ere, egiturazko plantillan lehendik zeuden plazak pixkanaka-pixkanaka berreskuratzeko xedez.

### **30. artikulua. Foru Sektore Publikoko beste erakunde batzuen ordainsarien araubidea**

1. Foru sozietate publikoetako eta foru fundazioetako lan kontratuko langileen 2021eko ordainsari osoak, 2020ko abenduaren 31n indarrean egon direnekin alderatuta, foru arau honetan ezarritakoaren arabera handituko dira, erkatu diren bi aldietarako homogeneousotasunari eutsita, bai langileei dagokionez, bai antzinasunari dagokionez. Nolanahi ere, ordainsariak ezin izango dute gainditu estatuko oinarrizko legerian ezarritako mugak.

2. Aurreko idatz zatian esandakoaz gain, ordainsarrietan egokitzapen bereziak egin ahal izango dira salbuespen gisa, betiere ezinbestekoak direnean, lanpostuen edukiagatik, programa bakoitzari esleitutako langileen kopuruaren aldaketagatik edo programari ezarritako helburuen betetze mailagatik eta aplikazioaren emaitza indibidualagatik, egokitzapenak egiten dituzten erakundeetako bakoitzean horretarako organo eskudunak onartuta.

3. Foru kargu publikoak diren pertsonen doazkien ordainsariak handitu egingo dira 2021ean, hala badagokio, foru enplegatu publikoentzat ezartzen den ehunekoaren antzera. Nolanahi ere, ordainsariak foru kargu publikoetan aritzea arautzen duen uztailaren 11ko 10/2018 Foru Arauak xedatzen dituenetara egokituko dira.

4. Edonola ere, foru sozietate publikoek eta foru fundazioek sindikatu erakunde garrantzitsuenekin negoziazioak egin ondoren ordainsarien inguruko akordioak sinatu baino lehen Ogasun, Finantza eta Aurrekontuen Sailaren aldeko txostena beharko da, eta akordioan ezin izango da ezarri guztirako ordainsarien igoera artikuluko honetako 1. eta 2. idatz zatietan ezarritakoa baino handiagoa izatea.

5. Foru sozietate publikoek eta foru fundazioek sindikatu erakunde garrantzitsuenekin eginitako negoziatioetan ezarritako gainerako lan baldintzen akordioetan, horiek sinatu baino lehen, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Sailaren aldeko txostena lortu beharko da.

## **VI. TITULUA ERAKUNDE KONPROMISOAK**

### **31. artikulua. Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeen finantzaketa**

1. Maiatzaren 23ko 12/2002 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna onartzen duenak, 51. artikuluan aipatzen dituen itundu gabeko zergetan udalek izango dituzten partaidetzen zenbatekoak Estatuko Administrazio Orokorra igortzen dituen berak izango dira, eta hark igortzen dituen maiztasun berarekin aginduko dira.

2. Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtzari 217.268.910,00 euroko aurrekontua ezarri zaio, 2021eko ekitaldiari dagokion urteko guztizko finantzaketa baldintzatu gabe gisa. Kalkulua baliabideak banatzeko eta Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontuak finantzatzeko foru aldundiek egin beharreko ekarpenak zehazteko aplikatuko den metodologiari buruzko martxoaren 23ko 2/2007 Legeko laugarren xedapen gehigarrian ezarritakoari jarraituz egingo da.

3. 2/2007 Legeak laugarren xedapen gehigarrian xedatzen duenari jarraiki, Obra eta Zerbitzuen Foru Planari 15.225.290,00 euroko aurrekontua ezarri zaio 2021eko ekitaldian; ekitaldi osorako baldintzapeko finantzaketa izango da.

4. Azaroaren 27ko 34/2013 Foru Arauak 1. artikuluan onartutako Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeei eginiko aparteko ekarpenak jasotzen dituzten aurrekontuko sailak onartutako laguntzen gauzapenaren moldera egokituko dira. Ordainketa kredituen edo konpromiso kredituen aldaketek ez dituzte bete beharko abenduaren 18ko 53/ 1992 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko ekonomia eta aurrekontu araubidearenak, ezartzen dituen mugak.

LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA. Dirulaguntza eta transferentzien aurrerakinak eta komunikazioa Batzar Nagusiei.

Lehenengoa. Urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzenak, 32.6 artikuluan ezartzen dituen ondorioetarako, 2021eko ekitaldian 20.000 euroko kopurua gainditzen ez duten edo sektore publikoak hartzaile dituzten dirulaguntza eta transferentzien ordainketei ez zaizkie aplikatuko beren araudi erregulatzailan ezartzen diren aurrerakinak ordaintzeko mugak.

Bigarrena. Abenduaren 18ko 53/1992 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko ekonomia eta aurrekontu araubideari buruzkoak, 131.h) artikuluan aipatzen duen zenbatekoa 60.000 euro izango da 2021eko ekitaldian.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA. I. Langileen gastuak.

Ordainsari igoera ezartzen da 2021eko ekitaldian. Igoera Arabako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak eta baimena ematen zaien foru sektore publikoko gainerako organo eskudunek zehaztuko dute; nolana ere, gehienez ere, Estatuko oinarritzko legerian ezartzen den muga orokorraren bestekoa izango da.

HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA. Arabako Foru Aldundiko tasen aldaketa orokorra.

Lehenengoa. Arabako Foru Ogasunaren zerga tasetatik kopuru finkoa dutenak -oinarrian ehuneko batek zehazten ez duelako edo zenbatekoa diru unitateetan balioetsita ez dagoelako- igo egingo dira 2020. urtean eskatzen zen kopuruari 1,015 koefizientea aplikatuta, hurrengo xedapen gehigarrietan xedatutakoa eragotzi gabe, 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera ondoreak izanik.

Bigarrena. Aurreko idatz zatian ezarritako koefizienteen emaitza diren tasak zentimo hamarrekotara biribildu daitezke, gora zein behera.

LAUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA. Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak kudeatzen dituen tasak.

Hirugarren xedapen gehigarriak ezartzen duena gorabehera, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak kudeatzen dituen tasen 2021eko zenbatekoak 2020an indarrean egon diren berberak izango dira.

BOSGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA. Arabako Foru Aldundiko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Sailak kudeatzen dituen tasak.

Hirugarren Xedapen Gehigarriak xedatutakoari kalterik egin gabe, 2021. urtean, Arabako Foru Aldundiko Enplegua Sustatzeko, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazio Sailak kudeatutako tasek 2020. urtean indarrean zeuden zenbatekoei eutsiko diete.

SEIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA. Nekazaritza Sailak kudeatzen dituen tasak.

Foru arau honek hirugarren xedapen gehigarriak ezartzen duena gorabehera, 2021eko ekitaldian indarrean jarraituko dute Arabako Foru Aldundiaren nekazaritza eta abelazkuntzako laborategietan saiakuntzak eta analisiak egiteagatik ordaindu beharreko tasaren hobariak (hobari horiek azaroaren 20ko 17/2011 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko 2012ko aurrekontua gauzatzekoak, arautzen ditu laugarren xedapen gehigarriaren 4. artikuluan).

ZAZPIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA. Arabako Lurralde Historikoko errepideen foru sarea osatzen duten errepideetako istripu tasari eta seinaleztapenari buruzko ziurtagiriak, agiriak edo txostenak egiteagatiko tasak.

Lehenengoa. 2021eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak dituela, Arabako Lurralde Historikoko errepideen foru sarea osatzen duten errepideetako istripu tasari eta seinaleztapenari buruzko ziurtagiriak, agiriak edo txostenak egiteagatiko tasa sortu da, eta horren araudi erregulatzailerak honako hau izango da:

#### **“1. artikulua. Oinarria eta izaera**

Arabako Foru Sektore Publikoko Tasa eta Prezio Publikoei buruzko ekainaren 27ko 9/2018 Foru Arauaren 13. artikulua b) letran xedatutakoaren arabera, tasak ezarri ahal izango dira foru eskumeneko zuzenbide publikoko araubidean zerbitzuak emateagatik edo jarduerak gauzateagatik, baldin eta alderdi batek eskatutako ziurtagiriak edo agiriak egiten badira.

#### **2. artikulua. Zerga egitatea**

Tasaren zerga egitatea dugu Arabako Lurralde Historikoko errepideen foru sarea osatzen duten errepideetako istripu tasari eta seinaleztapenari buruzko ziurtagiriak, agiriak edo txostenak egitea, alderdi batek eskatuta.

#### **3. artikulua. Subjektu pasiboa**

Tasa honen subjektu pasiboak izango dira Arabako Lurralde Historikoko errepideen foru sarea osatzen duten errepideetako istripu tasari eta seinaleztapenari buruzko ziurtagiriak, agiriak edo txostenak egitea eskatzen dutenak.

#### **4. artikulua. Sortzapena**

Tasaren sortzapenez batera, ordaindu beharra sortzen da ziurtagiria, agiria edo txostena egiteko eskaera aurkeztu ondoren, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailak interesdunari tasaren zenbatekoa eta ordaintzeko gehieneko epea jakinarazten dionean; beraz, ez da ziurtagiririk, agiririk edo txostenik egingo dagokion ordainketa egiten ez bada.

#### **5. artikulua. Kuota**

Zerga kuota 150 euroko zenbateko finkoa izango da eskatutako ziurtagiri, agiri edo txosten bakoitzeko.

#### **6. artikulua. Ordaintzeko era eta epea**

Tasa jakinarazi eta hurrengo hamar egunetan egingo da ordainketa, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailean ordainketa egiaztatzea ahalbidetzen duen edozein bitartekoren bidez; tasa ordaindu ezean, ziurtagiri-, agiri- edo txosten-eskaera artxibatu egingo da.

#### **7. artikulua. Kudeaketa eta administrazioa**

Arabako Foru Aldundiari dagokio tasa hori kudeatzea eta administratzea, eta Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailaren bidez gauzatu du, sail horrek baitu errepideen arloko eskumena.”

ZORTZIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA. Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde Autonomoak kudeatzen dituen tasak.

Hirugarren xedapen gehigarriak ezartzen duena gorabehera, Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde Autonomoak kudeatzen dituen tasen 2021eko zenbatekoak 2020an indarrean egon diren berberak izango dira.

BEDERATZIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA. Arabako Gazteriaren Foru Erakunde Autonomoak kudeatzen dituen tasak.

Hirugarren xedapen gehigarriak ezartzen duena gorabehera, Arabako Gazteriaren Foru Erakunde Autonomoak kudeatzen dituen tasen 2021eko zenbatekoak 2020an indarrean egon diren berberak izango dira.



HAMARGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA. AP-1 autobidea erabiltzeagatiko bidesariaren zenbatekoa eguneratzea.

